


berriak
Triforio-tikaraba
álava

Kontzertuan eta irekita

Santa Mariak Contratango eta Diego Vasallo hartuko ditu

Ana Alcaderen eskutik etorritako estreinaldi ikusgarriaren ondoren, beste bi kontzerturekin itzuliko da 'Kontzertuan eta irekita', ekainean. Ekainaren 16an, Contratango duoaz gozatu ahalko dugu; hau da, Sergio Fulqueris gitarra-jotzaile, konpositore eta moldatzaileak 2003tik garatzen duen proiektuaz. Silvia Luchettiren (ahotsa) eta Claudio Constantiniren (bandoneona) alboan, tango tradizionalaren eta garaikidearen musika-tresna adierazgarrienak eramango ditu Sergio Fulquerisek Santa Mariaren arkupera: ahotsa eta gitarra, alegia. Tangoa dantzatzeko behar den sentsualitatea transmititze asmoz, Contratango pasioa eta intentsitatea proposatzen ditu pieza bakoitzean, betiko tangoen bidez. Kontzertuan, errepertorio klasikoko eta garaikideko onena erreperasatuko da, abesti orijinal batzuekin batera.



Hilabetea amaitzeko, Diego Vasallo edukiko dugu ekainaren 30ean. Atzean ibilbide luzea eta karrera arrakastatsua dauzkan pintore, idazle eta musikaria da Vasallo (Duncan Dhu taldean nahiz bakarka aritu izan da), eta disko berria aurkeztuko digu: *'Baladas para un autorretrato'*. Musikalki, azken lanak aldaketa ekarri dio bere ibilbideari. Aurreko lanetan, abestiak biluztea izan da Diegoren irrika, gutxieneko adierazpena ekartzea horiek, gitarra akustikoa eta ahotsa lagun; oraingoan, berriz, berriro jantzi ditu. Arropa arinak dira, baina rocketik hurbilago daude, urruntzen joan zen lurraldetik gertuago.

Bi kontzertuak egingo dira atarian, 20:30ean.

Sarrerak: www.kontzertuanetairekita.eus edo
Katedraleko Bisitarien Zentroa

Prezioa: 10€ / 6€ Fundatzaileen Elkarteko bazkideentzat

Hurrengo jarduerak

Zinema arkupeetan

Uztailak 13, ostirala (22:00)

Ballerina, haurrentzako filma (euskaraz)

Uztailak 14, larunbata (22:00)

Un golpe con estilo
Santa Maria plaza, 22:00. Doako sarrera.

Uztailak 15, ostirala

Errezitala - Manilako Santo Tomas Unibertsitateko abesbatza
Katedralaren nabea, 20:00. Doako sarrera.

Kontzertuan eta irekita

Uztailak 28, larunbata

José Tomás Jiménez
Arkupea, 20:30.

Sarrerak:

www.kontzertuanetairekita.eus





Ahots koralak Santa Mariara bueltan

Ohitura bihurtu da Santa Mariaren arkupea ahots koralez betetzea ekainean. Arabako Abesbatzen Federazioaren laguntzarekin, lurraldeko musika korala hurbildu nahi digun zikloaren edizio berria abiaraziko da hilaren 1ean. Oraingo honetan, hogeitasei talde baino gehiagoz gozatu ahalko dugu tenpluaren arkupean; askotariko erreperitorioak eskainiko dituzten 800 ahots baino gehiago edukiko ditugu ingurune magiko horretan.

Ekaineko ostiral guztietan egingo dira errezitalak, 19:45ean. Sarrera doakoa da, baina Katedraleko Bisitarien Zentroan hartu beharko dira gonbidapenak (Santa Maria kantoia 3).

Egitaraua

Ekainak 1
Vicente García - Maiora Canemus -
Mairu - Florida

Ekainak 8
Gurasoak - Itzalde Erribera Beitia -
Canta Cantorum

Ekainak 15
Eguzkilores - Anhelos del rocío - Ha-
ritz Hostoa - Manuel Iradier

Ekainak 22
3. adinekoen elkartegiak - Enol -
Lautada - Urkanta

Ekainak 29
Ausartak - Ortzadar loar - Aiala -
Ahots Argiak



Nano-Cathedral

Nano-Cathedral proiektuaren amaiera iritsi da

Azken maiatza honetan Nano-Cathedral proiektuaren zazpigarren eta azken bilera teknikoa egin da Pisan (Italia). Kasu honetan Gasteiz arduratu zen bilera gidatzeaz, Leandro Cámararen (Santa Maria Katedrala) eta Santiago Tamayoren (Arabako Foru Aldundiko Laborategi Zerbitzu Orokorra) eskutik. Izan ere, bileraren gai nagusia izan zen proiektuan parte hartzen duten eraikin guztietan produktu berrien emaitzak balioztatzea, eta produktuon gaineko txostena egitea bi erakunde horien esku egon da. Aurkezpenak sekulako arrakasta izan zuen eta amaiera bikaina eman zion ondarearen kontserbazio- eta zaharberritze-teknika tradizioaletan teknologia berritzaileak aplikatzearen alde jardun duen europar proiektuari. Amaiera emateko bilera Bruselan egingo da Europako Batzordearekin. Ekainean egingo da eta, beste behin, Gasteiz izango da gainerako katedralak eta Osloko Opera House eraikina ordezkatzeko eta defendatzeko arduratuko dena, Koloniako Katedralako kontserbatzaile Ulrike Brinkmannen laguntzarekin.



Familia-bisitak

Santa Maria Katedrala Fundazioak tenplua familia osoarentzako helmuga turistiko izan dadin lortu nahi du. Hurrengo haurrentzako bisitak, non haurren mailara egokitutako azalpenak eskaintzen diren ibilbide guztia arazorik gabe uler dezaten eta onura atera diezaioten, izango dira:

Ekainak 9, larunbata, 16:45
(gaztelaniaz)

Ekainak 17, igandea, 17:00
(euskaraz)